



Esp. kodea: 2016SAPL0011

Gaia: PLENOA 2016/10/25
Hasiera eguna: 2016/10/18

AKORDIOEN LABURPENA

Udal Plenoak, 2016ko urriaren 25a egindako bilkuran, erabaki hauek hartu dituela informatzen dut:

1.- AURREKO BILKURAKO AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA.

Udal Plenoak, aho batez, 2016ko urriaren 4a egindako bileraren akta onartu du.

2.- ALKATETZAK EMANDAKO DELEGAZIOAREN BERRI EMATEA.(2015SKOR0001)

Alkatezak Oscar García Horrillo zinegotziari emandako delegazioaren berri eman da, hain zuzen ere, honen bitartez erabakitzen da arriskutsuak izan daitezkeen animaliak udal erroldan inskribatu eta hauek edukitzeko lizentziari dagokion eskuduntza espezifikoak Obra, Zerbitzu, Mantentze eta Auzoak arloaren eskuordetze generikoaren barnean sartzea, Tokiko Gobernu Batzarrari dagokion eskuordetzetik atereaz.

3.- “AGITAX”; PROPOSAMENA TAXI ZERBITZUAREN 2017KO HIRI TARIFEI BURUZ. (2016ZZER0143)

Aho batez onartu dira 2017. Urterako auto-taxi zerbitzuaren prezioak, aurtengo urtekoen berdinak. Honakoak:

	BANDERA JAISTEA	EGINDAKO KM	ITXARON ORDUA
EGUNEKOA, LANEGUNEAN*	3,5130 €	1,1005 €	21,0175 €
GAUEKOJA/JAIEGUNEAN	3,5130 €	1,7553€	33,0393 €

4.- PROPOSAMENA BAIMENTZEKO “CONSTRUCCIONES MURIAS, SA” ENPRESARI ADMINISTRAZIO EMAKIDAREN ADJUDIKAZIOA, BITERIN ETA LAUBIDEN APARKALEKUEN ESPARRUA USTIATU ETA KUDEATZEKO. (2004HOIE0004)

Aldeko 12 boto (EAJ-PNV, PSE-EE eta IRABAZI) eta 8 abstentziorekin (EH BILDU eta BALEIKE) onartu da, baimentzea “CONSTRUCCIONES MURIAS, SA” enpresari administrazio emakidaren adjudikazioa, Biterin eta Laubidean aparkalekuen esparrua ustiatu eta kudeatzeko eta aparkaleku hauen kudeaketari dagozkion beste hainbat erabaki.

5.- ARRASATEKO BIZIGUNE PROGRAMAREN KUDEAKETARAKO ARRASATEKO UDALAREN ETA SURADESAREN ARTEAN LANKIDETZA HITZARMENA SINATZEKO PROPOSAMENA. (2016IING0029)



Esp. kodea: 2016SAPL0011

Gaia: PLENOA 2016/10/25
Hasiera eguna: 2016/10/18

Udal Plenoak, aho batez, adostu du Arrasateko BIZIGUNE programaren kudeaketa SURADESAren esku uzteko lankidetzaz hitzarmena sinatzea.

6.-2017 URTERAKO ORDENANTZA FISKALAK ONTZAT EMATEKO PROPOSAMENA. (2016RBAR0035)

Aldeko 11 boto (EAJ-PNV ETA PSE-EE), kontrako 2 boto (BALEIKE) eta 7 abstentziorekin (EH BILDU eta IRABAZI) onartu da 2017 urterako ordenantza fiskalen aldaketa. Nagusiki ondoko aldaketak batzen dituen:

ZERGAK

- Gehitzea JEZren udal koefizientea, 2,193tik 2,2ra (Gehitzea % 0,32koa)
- Gehitzea hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zerga % 2, eta zerga tasa pasatuko da % 6,62tik % 6,7524ra.
- Aldatzea familia ugarien hobaria, eta onartzea hobari berri bat babes publikoko etxebizitzetarako, OHZn.
- Aldatzea ibilgailu hibridoaren hobaria, eta ezartzea gehienez ere 5 urte zerga onurarako.
- Onartzea hiru hobari berri, eta indargabetzea 10.a EIOZn.

TASA ETA PREZIO PUBLIKOAK

- Gehitzea ur horniduraren tasa % 1.
- Ez gehitzea zabor bilketako eta garraioko zerbitzuaren tasa, eta aldatzea konpostaren hobaria.
- Onartzea eraikinen ikuskatze teknikoaren agiria (EIT) izapidetzearen tasa berri bat
- Ez gehitzea tutoretzapeko etxebizitzaren zerbitzuaren tasa.
- Gehitzea gainerako tasak eta prezio publikoak, oro har % 2.

7.- ARRASATEKO HIRI ANTOLAMENDUAREN EGITAMU OROKORRAREN ONARPENAREN AURKA “ORANGE ESPAGNE, SAU” ENPRESAK JARRITAKO 487/2016 ZK.KO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTZOAN AGERTZEKO PROPOSAMENA. (2016HJKA0004)

Aho batez onartu da Orange Espagne SAU enpresak tartejarritako administrazioarekiko auzi errekurtsioan bertaratzea eta abokatu eta prokuradoreak izendatzea.

8.- ARRASATEKO UDAL HARRERA PROTOKOLOA: BEHIN BETIKO ONARPENA EMATEKO PROPOSAMENA. (2015GGIZ0068)

Aho batez Arrasateko Udal Harrera Protokoloa onartzen da behin betiko. Behin behineko onarpenarekiko aldaketa nagusia koordinazio batzordearen eta Aniztasun eta Elkarbizitzarako Kontseiluaren sorrera izan da

Arrasaten, 2016ko abenduaren 12a

IDAZKARIA

Amaia Gorrotxategi Zubizarreta